



Eragin

Euskara eta Literatura

DBHko 2. mailarako Euskara eta Literaturarako **Eragin** liburua Zubia Editoriala, S. L.ren eta Santillana Educación, S. L.ren Hezkuntza Argitalpenetarako Sailean **Joseba Santxo Uriarteren** eta **Teresa Grence Ruizen** zuzendaritzapean sortu, taxutu eta gauzaturiko talde-lana da.

Liburu honen prestatze- eta argitaratze-lanean honako talde honek esku hartu du:

Joseba Santxo
Josu Goikoetxea
Jon Ander Rojo
Aritz Gorrotxategi
Lander Azaola
Bixente Merino
Jexux Artetxe
Ismael Roman
Lorea Arrieta
Iraitz Urkulo
Jon Martin
Nerea Atxega
Lur Gallastegi
Idoia Aranberri

EDIZIOA

Ainhoa Basterretxea
Josu Goikoetxea
Jon Ander Rojo

PROIEKTUAREN ZUZENDARITZA
Joseba Santxo


Liburu honetako ariketak ezin dira inola ere liburuan bertan egin.
Ariketetan proposatzen ditugun taulak, eskema eta gainerako
baliabideak ikasleak koadernoan egin beharrekoen ereduak baino ez dira.

UNITATEA	KOMUNIKAZIOA		HIZKUNTZAREN ERABILERA		KOMUNIKAZIOA
	Ataria	Irakurmena	Gramatika		EGITEN JAKIN Komunikazio-jarduerak
1	Kar, kar, kar! • <i>Umorearen historia</i>	<i>Barre egitea, ariketa ezin hobea</i>	Perpausaren osagaien funtzioa	Izena eta izenordainak	• Txiste bat kontatzea • <i>Jon Plazaola aktorea</i> • Gonbidapena
	6	8	10	12	14
2	Klip-kultura • <i>Sorrera ikusgarria</i>	<i>Bideo-jokoak arte-mugimendua osatu nahian</i>	Izen-sintagmaren erabilera	Deklinabidea: Kasuak eta erabilera	• Bideo-joko bat azaltzea • <i>Erabaki etikoak jokoan</i>
	26	28	30	32	34
3	Hil eta gero, salda bero! • <i>Hildakoen omenez</i>	<i>Halloween, ohitura zaharra Euskal Herrian</i>	Deklinabidea: mugagabea	Adizlagunak: postposizioak	• Ohitura baten berri ematea • <i>Halloween bitxiak munduan</i>
	46	48	50	52	54
4	Beti bila ala berton goxo? • <i>Giza taldeen joana</i>	<i>Marko Polo nafarra</i>	Aditz jokatugabeak: aditz-izena	Aditz trinkoen erabilera	• Adopzio-kanpaina sortzea • <i>Arrano arrantzalearen bidaia</i>
	66	68	70	72	74
5	Mundua inauteri • <i>Asaskatu beharra</i>	<i>Gizon irudiduna</i>	Aditza: aspektua lehenaldian	Perpau motak	• Tribu urbanoak deskribatzea • <i>Larruazalaren artisauek</i>
	86	88	90	92	94
6	Mendian ala kalean? • <i>Panorama berdea</i>	<i>Bizitza alternatiboak</i>	Aditza: NOR-NORK aditz laguntzaileak	Perpaua: erlatiboa	• Etorkizuneko gizakia deskribatzea • <i>Ilargia eta Marte, giza koloniak</i>
	106	108	110	112	114
7	Artearen esanahia • <i>8 artelan harrigarri</i>	<i>Amets egiteko: Cirque du Soleil</i>	Aditza: NOR-NORI aditz laguntzaileak	Moduzko perpauak	• Margolan baten ezaugarriak azaltzea • <i>Musikaren balioa</i>
	126	128	130	132	134
8	Nortasuna bereizgarri • <i>Sortzaileen ezaugarriak</i>	<i>Aktoreen gutuziak</i>	Aditza: NOR-NORI-NORK aditz laguntzaileak	Denborazko perpauak	• Jokabide-protokoloa sortzea • <i>Internetetik askatzen</i>
	146	148	150	152	154
9	Domotika: zuk soilik klika! • <i>2050. urteko etxea</i>	<i>Sareko izarrak</i>	Baldintza hipotetikoaren erabilera	Baldintza jokatuak eta jokatugabeak	• Norbere logela diseinatzea • <i>Sekula ahaztuko ez dudana esperientzia</i>
	166	168	170	172	174
10	Irteera eta helmuga • <i>Zergatik lehiatu?</i>	<i>Vilariñotarren dama azkarra</i>	Aditza: agintera	Perpau osagarriak	• Bide-hezkuntza hobetzea • <i>Poloniatik Euskal Herrira sidearrean</i>
	186	188	190	192	194
11	Behin betiko esanak • <i>Aipu gogoangarriak</i>	<i>Jende bitxi hori</i>	Aditza: Ahalera	Kausazko perpauak	• Kontzientziazio-kanpaina egitea • <i>Mangazalea naiz</i>
	206	208	210	212	214
12	Zeru-lurren uztarri • <i>Mendi mitikoak</i>	<i>Magia duten eraikuntzak</i>	Aditza: Subjuntiboa	Kontzesio-perpauak	• Tokiak eta kulturak deskribatzea • <i>Atlantida</i>
	226	228	230	232	234
ERANSKINA	Gramatika-ariketategia eta aditz-taulak				

HIZKUNTZAREN ERABILERA		KOMUNIKAZIOA	LITERATURA-HEZKUNTZA		AMAIERAKO JARDUERAK
Lexikoa	Ortografia	EGITEN JAKIN Testu-tipologia	Jakingaiak eta testuak	EGITEN JAKIN	
Multzo-atzizkiak 16	Zenbaki kardinalak nola idatzi 17	Gauzak deskribatzea • <i>Papalagien oinetakoak</i> 18	Mitologia eta kondaira • <i>Ehiztari gaztea</i> 20	• Kondaira bat kontatzea 22	• <i>Leioako Umore Azoka</i> 🔊 24
Toki-atzizkiak 36	Zenbaki ordinalak nola idatzi 37	Entziklopediako sarrera • <i>Rubius</i> 38	Herri-ipuinak • <i>Suge erronkazalea</i> 40	• Ipuinak moldatzea 42	• <i>Bideo-jokoak, neskak eta mutilak</i> 🔊 44
Denbora-atzizkiak 56	Zenbaki banatzaileen idazkera 57	Dibulgazio-testua: deskribapenezkoa • <i>Kali, heriotzaren jainkosa</i> 58	Atsotitzak • <i>Maisu Juan eta euskaldun frantsesa</i> JUAN ANTONIO MOGEL 60	• Atsotitzak biltzea 62	• <i>Halloweenerako kalabaza-tarta</i> 🔊 64
Gogo-atzizkiak 76	Aditzoinaren idazkera 77	Orientabideak • <i>Donostiako Alde Zaharra</i> 78	Alegiak • <i>Elefantearen tronpa</i> 80	• Alegiak idaztea 82	• <i>Indian dena da posible</i> 🔊 84
Interjekzioak 96	Aditz-partizipioen idazkera 97	Albistea • <i>Objektuak azalaren bidez xurgatzen dituen gizona</i> 98	Haur eta Gazte literatura • <i>Godofredo</i> ALAINE AGIRRE 100	• Liburutegirako gida osatzea 102	• <i>Tatuajea</i> 🔊 104
Hitz-elkarketa 116	Menderagailuak 117	Kazetaritza-elkarriketa: zehar-estiloz kontatutakoa • <i>Hawking eta unibertsoaren legeak</i> 118	Narratiba I: bidaia eta abenturak • <i>Nevadako egunak</i> BERNARDO ATXAGA 120	• Abenturen albuma osatzea 122	• <i>Etorkizuna iragarri zuen gizona</i> 🔊 124
Lokuzioak eta atsotitzak 136	<i>h</i> letraren erabilera 137	Iritzi-artikulua • <i>Alfonbra gorria</i> 138	Narratiba II: eleberri historikoa • <i>Antso</i> MILA SALTERAIN 140	• Kondaira bat berridaztea 142	• <i>Margogintza, bizi-iturri</i> 🔊 144
Arloak eta familiak 156	Txistukariak 157	Iruzkina: film bati buruzkoa • <i>Requiem for a dream</i> 158	Narratiba III: eleberri erromantikoa • <i>Bihotzaren mekanika</i> MATHIAS MALZIEU 160	• Generoa identifikatzea 162	• <i>Drogak eta ikasleen iritziak</i> 🔊 164
Kirolaren arlo lexikoa 176	Puntuazioa 177	Iragarkia • <i>Altza altzariak. Irratirako iragarkiaren gidoia</i> 178	Narratiba IV: polizia-eleberria eta eleberri beltza • <i>Txanpaina, mesedez</i> OIER SANTOS 180	• Misterio bat argitzea 182	• <i>Logelaren deskribapena</i> 🔊 184
Jaien eta ospakizunen arlo lexikoa 196	Harridura- eta galdera-markak 197	Gutun irekia • <i>Gutun irekia Jules Bianchiri</i> 198	Narratiba V: beldurrezko eleberria • <i>Itsaslabarreko etxea</i> MIREN AGUR MEABE 200	• Beldurrezko istorioa idaztea 202	• <i>Laino guztien azpitik</i> 🔊 204
Eguraldiaren arlo lexikoa 216	Marratxoak eta marra luzea 217	Gonbita • <i>Euskal Encounter topaketa</i> 218	Narratiba VI: zientzia-fikzioa • <i>Kableak</i> ASEL LUZARRAGA 220	• Aurrerapenak iragartzea 222	• <i>Zer da frikia izatea?</i> 🔊 224
Modaren arlo lexikoa 236	Gailu elektronikoen bidez idaztea 237	Egitaraua • <i>Udako Solstizioaren jaia</i> 238	Zinema eta literatura • <i>Harry Potter eta sorgin harria (gidoia)</i> J. K. ROWLING 240	• Film baten erreseina idaztea 242	• <i>Paisaia: inguru polita baino gehiago</i> 🔊 244


DBH 2ko Euskara eta Literaturarako **ERAGIN 2** liburua 12 unitate didaktikotan antolatuta dago. Unitate bakoitzean hiru programa nagusi daude: **Ahozko eta idatzizko komunikazioa**, **Hizkuntzaren erabilera** (gramatika, ortografia eta lexikoa) eta **Literatura-hezkuntza** (jakingaiak eta testuak). Bestalde, **Egiten Jakin** izeneko atalak txertatu ditugu (lau unitateko), prozedurazko edukiei dagokien tokia emate alde.

Unitate bakoitzaren atariko orrialdeetan gai interesgarri bat aurkeztuko zaigu, oso era erakargarrian, ikasleak motibatzeko helburuarekin. Orrialde horietako behealdean lau hizkuntza-trebetasunak lantzen hasteko proposamenak daude, lauki banatan. Gainera, eskuineko orrialdean, gai orokorraren azpigai bat lantzen da beti, Euskal Herriarekin loturikoa. loturaren bat duena.




Laukitxo hauetan lau hizkuntza-trebetasunak lantzeko proposamenak daude: **Mintzamena, Entzundakoaren ulermena, Irakurmena** eta **Idazmena**.

1. programa. Idatzizko eta ahozko komunikazioa



Irakurtzeko gaitasuna
lantzeko testua.



Testu moten bereizketa, azterketa eta ekoizpena **Egiten jakin.**

OINARRIZKO GAITASUNAK

Liburuan zehar, **HEZIBERRI**ren araberako oinarritzko gaitasunen ikurrak ikusiko dituzu zenbait jardueraren ondoan. Ikur horiek kasu bakoitzean zer gaitasun lantzen den adierazten digute.

ARLOKO GAITASUNAK



**Hizkuntza- eta literatura-
komunikaziorako
gaitasuna**



Matematikarako gaitasuna



Zientziarako gaitasuna



Teknologiarako gaitasuna



Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna



Arterako gaitasuna



Mugimendua
gaitasuna

ZE HAR-GAITASUNAK



Hitzez, hitzik gabe eta era digitalean komunikatzeko gaitasuna



Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna



Elkarbizitzarako gaitasuna



Ekimenerako eta ekintzaile-sena garatzeko gaitasuna




Izaten ikasteko gaitasuna

Testu pragmatiko
laburrak **Egiten jakin.**

Hainbat egoera komunikatibo erreali aurre **Egiten iakin**.

2. programa. Hizkuntzaren erabilera (gramatika, ortografia eta lexikoa)

Hizkuntzaren erabilaren atalean **Gramatika**, **Ortografia** eta **Lexikoa** lantzen dira. Alde teorikoak eta jarduerak praktikoak osatzen dute lan-saio bakoitza.




Gramatikak bina orrialdeko bi saio ditu unitateko. Gramatika osoa da, hizkuntzaren osagai guzti-guztiak lantzen dituen, baina aldi berean oso praktikoa.

Lexikoa atalak hiztegia aberasteko bideak eskaintzen ditu. **Ortografiak** atalean, berriz, zuzen idazteko arauak azaltzen dira. Bi-bietan daude ariketak.

3. programa. Literatura-hezkuntza (jakingaiak eta testuak)


Langaia Testua abiapuntu, azalpen argiak (kontzeptu giltzarriak nabarmenduta) eta amaiera praktikoa. Langaiei laguntzeko, eskemak, irudiak eta datu jakingarriak.



Testuak Eduki teorikoak testuan bertan lantzeko azpiatala Ulermen literarioa garatzen laguntzeaz gain, ikasitakoaren barneratze-maila egiaztatzeko balio du.

Egiten jakin atalean sormen eta ezagutza literarioarekin lotutako jarduerak daude, betiere landutakoaren erreferentzian.

Unitate bakoitzaren amaieran, landutako **Idea nagusiak** daude laburbilduta. Hurrengo bi orrialdeetan **Amaierako jarduerak** proposatzen ditugu, unitateko langai guztien berrikusketa egiteko. Hemen hiru programetako atal guztiak berrikusten dira. Amaizteko, testu-tipologian landutako testu motaren berrikusketa praktikoa egiten da.



1

Kar, kar, kar!

Euskara

JAKIN

- Perpaus-osagaien funtzioa, izenak eta izenordainak
- Multzo-atzizkiak
- Zenbaki kardinalak nola idatzi

EGITEN JAKIN

- Txiste bat kontatzea
- Gonbidapena egitea
- Gauzak deskribatzea

Literatura

JAKIN

- Mitologia eta kondaira

EGITEN JAKIN

- Kondaira bat kontatzea

Umore ironikoa



Umore super-errealista



Umore beltza



Umore grafikoa



Umore zuria

MINTZATU

- Umore mota desberdinak daude. Hitz egin orrialde honetan aipatzen diren umore motei buruz.
- Ezagutzen al duzu beste umore motarik?
- Zein umore mota duzu gogokoen? Eta zein zaizu gogaikarrien? Zergatik?

ENTZUN

- Entzun *Umorearen historia* testua eta erantzun:
 - Zer mediku greziarrek sortu zuen gorputzaren likidoen teoria?
 - Naturaren zer elementu aipatzen dira teorian?
 - Zer hizkuntzatatik etorri zaigu «umorea» hitza?

Hau da hau!



★ Kike Amonarriz

Enrike «Kike» Amonarriz Tolosan jaio zen 1961ean. Euskal filologogoa eta soziolinguista da, bai eta umorista eta telebista-aurkezlea ere.

Euskal umorea

Kikeren iritziz, euskal umorea oraintsura arte, oso tradizionala izan da, nekazaritza munduari aski lotua, eta neurri batean inozo samarra, gai batzuk tabu izan baitira euskaraz sorturiko umorearen esparruan.

Azkenaldian, baina, euskal umorea asko zabaldu eta eguneratu ere egin zaigu, literaturan, telebistan, zinean... Guztiarekin ere, euskaratik umore adimentsua-goa egiteko erronka ere hortxe dagoela dio.

Euskarazko txistek



Euskaldunok askotan erdarara jotzen dugu txistek kontatzeko orduan. Baina dagoeneko euskarara hutsezko bilduma politak dauzkagu.

Kike Amonarrizek ere ekarpen handia egin du hor. Txiste-bildumak argitaratzen hasi zen, baina gero bildu-

ma horiek pertsonalizatu ere egin, eta hortik «Txorakikeriak» sortu ziren.

Azken txorakikeriak izeneko alea ere argitaratu du, baina ez dugu sinetsi behar azkenak izango direnik. Izan ere, Kike beti dabilkigu adar joka!



Marilyn Monroe, James Gill (zattia)



Monna Lisa, Leonardo da Vinci



IRAKURRI



- Nongoa da Kike Amonarriz eta zer da ikasbidez?
- Zer uste du Kikek euskal umoreari buruz?
- Zer ekarpen egin du Kikek euskal txisteen arloan?
- Ezagutzen al duzu euskal txisterik? Kontatu baten bat.



IDATZI



Erreparatu arretaz goiko margolan biei, eta egin bien deskribapen konparatua.

- Lehenik egin bakoitzaren deskribapen fisikoa.
- Ondoren, deskribatu irudiek islatzen duten izaera, eta konparatu biak.

★ Barre egitea, ariketa ezin hobea

Bitxia dirudien arren, barrea oso kontu serioa da. Hainbat ikerketaren arabera, barre egitea osasungarria da: arnas bolumena handitzen du, digestioa hobetzen, mina arintzen, estresa gutxitzen, gazteago sentiarazten gaitu, loa mesedetzen du... Asko dira barreak eragin ditzakeen onurak, eta, horrez gain, ariketa fisikoa ezin hobea ere bada. Barrezka ari garenean lauhun gihar inguru mugitzen ditugu, batez ere sabel aldean. Pentsa, abdominalak landu nahian bazabiltzate, barrezka hastea duzue onena.

Izan ere, ez da txantxetarako kontua barrearena. «Barrea da gauzarik osasungarriena, botikarik onena», dio Madan Kataria indiar guruak, Barrearen Yogaren sortzaileak. Mugimendu horri jarraiki, milaka *Barre-klub* sortu dira mundu osoan zehar, eta klub horien moda ekialdetik mendebalderaino hedatzen ari da pixkana. Gurean ere badira barrea lantzen duten taldeak, eta gero eta gehiago dira gaiari buruzko tailer nahiz ikastaroak.

Kataria jaunak 1995ean garatu zuen barrearen bere teknika. Mumbaiako parke batean hasi zen lanean, inguruan bost ikasle zituela. Arnasketa-ariketak, txaloak, barrea eragiten duten pantomima joko arruntak tarte-katuz, Kataria jauna barrearen inguruko yoga lantzen hasi zen. 1998an, Irribarrearen Munduko Eguna ospatu zuen urtarilaren 10ean. Geroztik, maiatzeko lehen igandean ospatzen da egun berezi hori munduan.

Askorentzat bitxikeria hutsa edo erokeria izan zitekeena, gaur egun gai serio eta zientifikoki frogagarria da. Gainera, Barrearen Yoga premisa jakin batean oinarritzen da: gorputzak ez ditu benetako barreak eta nahita eragindakoak ezberdintzen. Hortaz, edozein barre mota onuragarria da gure gorputzarentzat. Izan ere, barreari esker, emozioak askatzen ditugu, sentitzeko eta maitatzeko ateak irekitzen ditugu eta gure sormen-ahalmena handitzen dugu. Laburbilduz, barreak zoriontasunerako bidera garamatza.

Beharbada, horregatik izan dute hain zabalkunde handia Katariaren ideiek. Esate baterako, Indiako Bangalore hirian Barrearen Yogaren Unibertsitatea sortu dute. Irakaskuntza mailan bakarrik ez, lanaren mundura ere heldu dira Katariaren ideien oihartzunak. Adibidez, informatikaren alorreko Hewlett-Packard eta autoen alorreko Volvo enpresetan praktikan jartzen ari dira ideia horiek. Nola? Lanean barre-saioak eginez. Berdin da botila erdi hutsik edo erdi beterik ikusten ote duzuen, kontua da barruan dar-magun umea ateratzea, gure jatorrizko barrea ateratzea.

Azken urteotan, Madan Kataria barrearen *profeta* bihurtu da. Hitzaldiak ematen ditu han-hemenka, barre-saioak egiten ditu eskoletan, ospitaletan edota adinekoen egoitzetan. Indiar guruaren ustez, barre egiten dugunean, aldatu egiten gara, eta aldatzen garenean, mundua ere aldatzen da gure inguruan. Gauza jakina baita barrea kutsakorra dela. Ziur inoiz gertatu zaizuela: norbait barrezka hasi, eta, berehala, inguruko guztiak ere barrezka hastea, harik eta malkoak bota arte. Egiazki, nork bere burua alaitzeko modurik onena beste norbait alaitzea da.



Jakina, barreaz ari garenean, ez gara besteen kontura barre egiteaz ari, besteekin batera barre egiteaz baizik, edo gure buruaz barre egiteaz. Izan ere, arazoei aurre egiteko modu egokia izan daiteke gure buruaz barre egiten ikastea.

Esaera zahar batek dioen bezala, barrerik gabeko egun bat, alferrik galdu-tako egun bat da.



Testua aztertzen

Informazioa jaso

- 1 **Madan Kataria...** Aukeratu jarraipen egokia, eta zuzendu okerrak.
 - a) Bangaloreko Barre-klubaren sortzailea da.
 - b) Informatikaren alorreko *profeta* bihurtu da.
 - c) Mumbain hasi zen barrearen bere teknika garatzen.
- 2 Erantzun galdera hauei:
 - Zein dira barrearen onurak?
 - Zer premisa jakinean oinarritzen da Barrearen Yoga?
 - Gaur egun, noiz ospatzen da Irribarrearen Munduko Eguna?
- 3 Zertan datza barrearen terapia? Aukeratu erantzun egokiena.
 - a) Gure barruan daramagun barrea bilatzean datza.
 - b) Besteen kontura barre egitean datza.
 - c) Barreari eustean datza.
- 4 Azaldu zer gertatzen da norbait barrezka hasi eta berehala.
- 5 Adierazi baieztapen hauek egia ala gezurra diren.
 - Indiako Mumbai hirian sortu zuten Barrearen Yogaren Unibertsitatea.
 - Irribarrearen Munduko Eguna urtarrilaren 10ean ospatu zen lehen aldiz.
 - Barrearen Yogari jarraiki, milaka *Barre-klub* sortu dira mundu osoan zehar.

Testua interpretatu

- 6 Adierazi zer adierazi nahi duen egileak testuko esaldi honen bidez: *Barrea da gauzarik osasungarriena, botikarik onena.*

- 7 Zergatik esaten diote barrearen *profeta* Madan Katariani? Azaldu zeure hitzak erabiliz.

Testuaren egitura

- 8 Zer testu mota irakurri duzu? Aukeratu.
 - a) Madan Katariaren biografia.
 - b) Barrearen onurei buruzko iritzi-artikulu bat.
 - c) Barrearen Yogari buruzko erreportaje bat.
- 9 Adierazi gai hauek testuko zein pasartetan jorratzen diren.
 - Barrearen Yogaren sorrera.
 - Barreari esker jasotzen ditugun onurak.
 - Katariaren ideiek izandako zabalkundea.
 - Katariaren gaur egungo zeregina.

Hizkuntza-baliabideak

- 10 Testuan *-garri* atzizkia daramaten zenbait hitz ageri dira: *frogagarri* (froga daiteke), *onuragarri* (onura ekartzen/sortzen du). Osatu hitzak eta azaldu esanahia, adibidean bezala.
 - froga(tu) + *garri* = frogagarri ► froga daiteke.
 - onura + *garri* = onuragarri ► onura ekartzen/sortzen du.
 - izu(tu) + *-garri* • zirrara + *-garri*
 - mugi(tu) + *-garri* • egin + *-garri*

Hausnartu eta azaldu

- 11 Testuan *Barrearen yoga* aipatzen da. Badakizu zer den *yoga*, eta nondik datorren?
- 12 Nahikoa barre egiten al dugu orokorrean? Zerk eragiten ditu barrerik gehien?

Perpausaren osagaien funtzioa

1 Perpausaren osagaiak

Perpausak **bi osagai nagusi ditu**: IZEN-SINTAGMA (izena ardatz duen elementu multzoa) eta ADITZ-SINTAGMA (aditza ardatz duen elementu multzoa).

► Txoria abesten ari da.
IS AS

P → IS + AS

Izenaren eta aditzaren inguruan hainbat elementu gehitu ditzakegu informazio osoagoa emateko.

► Zuhaitzeko txori txikia umeari kantua ozenki abesten ari zaio.
Izenlaguna Izenondoa IS NORI IS NOR Adberbioa

IS → (izlag.) + iz + (izond.) + det.

AS → (adberbioa: adlag., adond.) + (IS nori) + (IS nor) + ad.

2 Osagaien funtzioa

Izen-sintagmak eta aditz-sintagmak funtzio ezberdina betetzen dute perpausetan. Izen-sintagmak **ekintza nork egiten duen** adierazi ohi digu; hortaz, subjektu-funtzioa egiten du.

► *Nire lagun minak...* (Subjektua)

Aditz-sintagmak, aldiz, **ekintza bera** azaltzen du; beraz, predikatu-funtzioa betetzen du.

...*bere urtebetetze-jaira gonbidatu nau.* (Predikatua)

3 IS-ren funtzioa subjektuan eta predikatuan

Izen-sintagmak subjektu funtzioa bete dezake; hala ere, **predikatuan ere ager liteke aditzaren osagarri**. Horrelakoetan, osagarri zuzena edo zehar-osagarria izan daiteke:

- **Osagarri zuzena** predikatu barruan NOR deklinabide-kasua daraman izen-sintagma da. Sintagma horri NORK motako aditzek (*jan, egin...*) eta NOR-NORK edo NOR-NORI-NORK motako laguntzaileek laguntzen diote. Osagarri zuzenak laguntzaile horiek aldaraziko ditu, singularra edo plurala den.

► Mikelek sagarra jan du. / Mikelek sagarrak jan ditu.

Osg. Zuzena (IS NOR)

Mikelek niri sagarra eskaini dit. / Mikelek niri sagarrak eskaini dizkit.

Osg. Zuzena (IS NOR)



- **Zehar-osagarria** predikatu barruan NORI deklinabide-kasua daraman izen-sintagma da. Kasu honetan, NOR (*erori, joan...*) zein NORK motako aditzekin ager daiteke, eta NOR-NORI eta NOR-NORI-NORK motako aditz laguntzaileek lagunduko diote osagarriari. Sintagma horrek ere laguntzaileak aldaraziko ditu, singularra edo plurala den.

► Anek **ikasleari** orria banatu dio. / Anek **ikasleei** orria banatu die.
Zehar-osg. (IS NORI)

Pailazoari tarta erori zaio. / **Pailazoei** tarta erori zaie.
Zehar-osg. (IS NORI)

Bestalde, osagarri zuzena eta zehar-osagarria batera ager daitezke perpaus berean.

► Beleak **azeriari janaria** lapurtu dio.
Zehar-osg. (IS NORI) Osg. Zuzena (IS NOR)

JAKIZU



Zenbait aditzekin (*ikusi, jo...*) osagarri zuzena eta zehar-osagarria nahasteko joera okerra dago.

- Nik **zu** kalean ikusi zaitut.
(*Nik **zuri** kalean ikusi zaitut.)
- Nik **zuri** keinua ikusi dizut.

ARIKETAK

- 1 Bereizi perpaus hauetako subjektuak eta predikatuak:

→ Gure etxeko txakurrak eskua ematen digu.
Subjektua Predikatua

- Itsasoko olatuek botila bat ekarri dute.
- Nire auzokideek ozen jartzen dute telebista.
- Iñaxiok esku batekin altxa lezake harri hura.
- Guri film bat ikustea gustatuko litzaziguke.
- Haizea ate azpitik sartu zaigu gelan.

- 2 Lotu subjektuak eta predikatuak.

Ni	• baso bat ur atera dio Aneri.
Tabernariak	• ogitartekoa prestatu dizu.
Sukaldariak	• perretxikotan joan naiz.
Txakurrak	• mihia erakutsi zigin.
Bertsolariak	• bertso bat abestu dizue.
Maddalenek	• katuari zaunka egin dio.

- 3 Azpimarratu perpausetako osagarri zuzenak eta zehar-osagarriak.

- Mikelek zuei gezur galanta kontatu dizue.
- Aitonak ipuin barregarriak kontatu zizkidan niri.
- Mekanikariak autoa konpondu dio nire aitari.
- Dendariari gerezi guztiak erori zaizkio lurrera.
- Erizainak odola atera zigun guri.
- Niri ez zait zure bufanda zuria gustatzen.

- 4 Osatu esaldiak osagarri zuzen hauek erabiliz.

azterketak	isuna	prakak
purea	poesiak	pintzela

- Jostunak josi dizkit.
- Sukaldariak prestatu du bazkaltzeko.
- Udaltzainak jarri die gidariei.
- Idazleak irakurri dizkigu.
- Margolariari erori zaio.
- Irakasleak zuzendu ditu.

- 5 Idatzi zehar-osagarri zuzena hutsune bakoitzean.

- Nik komiki bat oparitu dizut.
- Zuk gurpilak konpondu zenizkigun.
- Irakasleak eskerrak eman dizkit.
- Ikaskideek adarra jo dizuete.
- Auzokideek jai zoriontsuak opa dizkizute.
- Eguraldi-iragarpenak ez digu ezer argitu.

- 6 Idatzi bost perpaus subjektu, osagarri zuzen eta zehar-osagarri hauek erabiliz.

- | | | |
|--------------|-----------|----------------------|
| • Aitak | • niri | • txokolatzeko opila |
| • Amak | • zuri | • gona gorria |
| • Zuk | • semeari | • irrati bat |
| • Nik | • lagunei | • ilea |
| • Gozogileak | • amari | • errieta |

Izena eta izenordainak

1 Izen motak

Izenak **arruntak** (*lagun, mendi...*) edo **bereziak** (*Izaskun, Bizkaia...*) izan daitezke. Bestalde, izen arruntak **zenbakarriak** (zenbatu daitezkeenak) eta **zenbakaitzak** (zenbatu ezin daitezkeenak) izan daitezke. Hartara, izen zenbakarriak zenbatzaileen bidez zenbatuko ditugu:

► *txakur bat, bi sagar, hiru marrubi, lau lore...*

Izen zenbakaitzak, aldiz, ezin dira zenbatzaileen bidez (*bat, bi...*) neurtu:

► **maitasun bat, *bi hotz, *bero asko, *lau poza...*

Hortaz, izen zenbakaitzek ez diote *Zenbat?* galderari erantzuten, **Nolako(a)? galderari** baizik. Mota horretako izenekin izenondoak (*handia, luzea*) erabiliko ditugu, bere maila adierazteko:

► *Itxi leihoa, hotz handia egiten du-eta.*

Denbora luzea eman dut liburu hau irakurtzen.

2 Izenordain motak

Izenaren ordeiz izenordaina (*zu, guk, neuk, haiek...*) ager daiteke. Izenordainak **hainbat motatakoak** dira: pertsona-izenordainak, izenordain zehaztugabeak, bihurkariak eta elkarkariak.

• **Pertsona-izenordainak** arruntak eta indartuak izan daitezke.

Izenordain arruntek singularreko zein pluraleko lehen eta bigarren pertsonak izendatzen dituzte (*ni, zu, gu...*). Hirugarren pertsonak izendatzeko erakusleak erabiltzen ditugu (*hura, haiek...*). Deklinabidekasu guztiak har ditzakete:

► *ni, nik, niri, zu, zuk, zure, zurekin...*

Perpaus barruan **izenordaina bera galdegaia denean**, hau da, izenordaina nabarmendu nahi dugunean, **izenordain indartua** erabiliko dugu. Askotan, aurkakotasuna azpimarratu nahi dugunean erabiltzen dugu:

► *Neuk egingo dut, ez zuk.*

Geu ere joango gara zuekin.

• **Izenordain zehaztugabeen** artean, galdetzaileak eta horietatik eratorriak dauzkagu.

Izenordain **galdetzaileak** *nor*, *zer* eta *zein* dira:

► *Nor da horko neska hori?*

Zein kamiseta nahi duzu, gorria ala urdina?

Galdetzaileetatik eratorritako izenordain zehaztugabeak hauek dira: *nor-bait, inor, ezer, zerbait, zer edo zer, edonor, edozer...*

► *Norbait etor dadila niri laguntzera.*

Zerbait afalduko dugu zinemara joan aurretik.



Inor eta ezer izenordainak, batez ere, **galderetan eta ezezkoetan** erabili ohi ditugu; *norbait eta zerbait*, berriz, **baiezkoetan**.

- *Inor* etorri al da goizean? Bai, norbait bai.

Ez al duzu albistegian ezer entzun? Bai, zerbait entzun dut.

- **Izenordain bihurkariak** erabiliko ditugu ekintza baten egilea eta har-tzailea pertsona bera denean.

Horretarako, izenordain indartuak (*neu, zeu*) NOREN deklinabide-kasua hartuko du, eta *burua* hitza gehituko diogu: *neure burua, zeure burua*...

- *Futbolariak* bere burua lurrera bota zuen.

Etxetik irten aurretik, neure burua ispiluan ikusi dut.

Izenordain bihurkariak ere deklinabide-kasuak hartzen dituzte: *neure buruari, zeure buruarentzat, geure buruarengan*...

- *Eta etorkizunean, zer?* galdetzen diot sarritan neure buruari.

- **Izenordain elkarkariak** bi pertsonen arteko elkarrenergina adierazten dute. Hau da, A-k B-engan eragiten du, eta alderantziz.

- Guk biok goizean elkar ikusi dugu. (*Nik zu* ikusi zaitut, eta *zuk ni*.)

Elkar izenordainak ere deklinabide-kasu guztiak har ditzake (*elkar, elkarrekin, elkarri, elkarrentzat*...), NORK kasua izan ezik (**elkarrek*).

- *Ane eta Jon* elkarrekin eseri dira. (*Ane Jonekin; Jon Anerekin*)

JAKIZU



Sarritan honelako esapide okerrak entzuten ditugu:

* *Ispiluan begiratu naiz.*

* *Kalean ikusi gara.*

Horiek era jatorrean adierazteko, **-ren burua** eta **elkar** izenordainak erabiliko ditugu:

• *Ispiluan begiratu diot* neure buruari.

• *Kalean ikusi dugu* elkar.

ARIKETAK

- 1 Aukeratu izen zenbakaitz bakoitzari dagokion izenondo egokia.

- Izerditan nago, bero egiten du eta.
a) handia b) asko c) luzea
- Denbora aritu naiz maketa eraikitzen.
a) asko b) bat c) luzez
- Haize dator iparraldetik.
a) gogorra b) luzea c) asko
- Lotsa ematen dit zuen aurrean abesteak.
a) izugarria b) luzea c) bat

- 2 Aukeratu izenordain arrunta edo indartua.

- *Neu/Ni* izan naiz deitu dizuna.
- *Zuk/Zeuk* auto gorri bat gidatzen duzu.
- *Geuk/Guk* egin ditugu erosketak, ez Mainerrek.
- *Niri/Neuri* gereziak ikaragarri gustatzen zaizkit.
- *Zeuek/Zuek* izan al zineten robota sortu zenutenak?
- Arratsaldean *gu/geu* parkera joango gara.

- 3 Osatu perpausak, izenordain bihurkariak erabiliz.

neure burua	bere burua	bere buruari
bere buruaz	neure buruarekin	euren buruarekin

- Igerilariak uretara bota zuen.
- Kaixo, aurkeztuko dizuet.
- Mutil horek harro egoteko arrazoiak dauzka.
- Partida galdu ostean, jokalariek haserre zeuden .
- Anek nagusitan zer izan nahi duen galdetu dio .
- Gogor aritu naiz lanean eta pozik nago .

- 4 Berridatzi perpausak, elkarkariak erabiliz.

- Asierrek Amaia maite du; Amaiak Asier maite du.
→ *Asierrek eta Amaiak elkar maite dute.*
- Nik zurekin egin dut lan hau; zuk nirekin egin duzu.
- Guk zuei idatziko dizuegu; zuek guri idatziko diguzue.
- Jonek ez dio Maddiri hitz egiten; Maddik ere ez Joni.
- Nik zu kalean ikusi zaitut; zuk ni ikusi nauzu.
- Guk zuengan konfiantza dugu; zuek gukan ere bai.



Txiste bat kontatzea



Umorea eta irribarrea ezinbestekoak dira gure bizitzan. Egiaztatuta dago umore ona eta barre alaia edozein botika baino hobeak direla. Demagun txiste-lehiaketa bat antolatu behar duzuela. Txiste onak, barregarriak sarituko dira. Baina zer behar du txiste batek ona izateko? Eta zuek, ba al dakizue txisterik kontatzen?

1 Aukeratu. Zer behar du txiste on batek grazia egiteko? Zergatik?

- Bukaera ona.
- Kontatzeko modua.



2 Eztabaidatu denen artean. Mugarik izan behar al du txiste batek? Gogoan izan mota honetako txisteak.

- Txiste sexistak.
- Txiste arrazistak.
- Gabeziaren bat duten pertsonen buruzko txisteak.

3 Lotu esaldiak, konparazio barregarriak osatzeko.

- | | |
|----------------------|---|
| Hain garaia zen • | • uz azpian ere ez baitzen isiltzen. |
| Hain alferra zen • | • esnatzean, afaldu egiten baitzuen. |
| Hain berriak ziren • | • txoriek habia egin baitzioten buruan. |

4 Irakurri eta aukeratu bukaera egokia. Ondoren, azaldu zergatik aukeratu duzun.

Gizon bat, ilargia baino bakartiagoa baitzen, txori denda batera sartu zen eta hizketan zekien loro bat eskatu zuen. Dendariak hanka bakoitzean soka loturik zuen bat erakutsi zion.

–Ezkerreko sokatik tira eginez gero, euskaraz hitz egingo dizu

–azaldu zion saltzaileak –, eta eskuinekoatik tira eginez gero, katalanez.

–Aizu, eta bietatik batera egiten badiot? –galdetu zuen gizonak.

A

–Grrrrrooooo! Zozoa halakoa!
Lurrera eroriko naiz mokoz
aurrera! –erantzun zuen loroak.

B

–Gaztelaniaz hitz egingo dizu
–erantzun zion saltzaileak.



5 Ikaskide bakoitzak txiste luze bat edo bi txiste labur pentsatu beharko ditu. Kontuan izan, puntu hauek.

- Bukaera barregarria izan behar du, inork espero ez duena.
- Behar baduzu, erabili hotsak eta onomatopeiak, kontaketa dibertigarriago egiteko.
- Egin txisteko pertsonaien deskribapena, esajerazio edo konparazioak erabiliz.
- Antzetzu txisteko pertsonaien ahotsak, bakoitzari doinu bat emanez.

ENTZUTEKO TESTUA



Jon Plazaola aktorea

Aisialdia betetzeko hainbat aukera ditugu: musika entzutea, paseatzea, irakurtzea, Interneten kuxkuxeatzea, kirola egitea, bideo-jokoekin jolastea... Hala ere, sarritan sofán eseri eta telebista ikusteko gogoá baino ez dugu izaten.

Telebista hainbat genero biltzen dituen kutxa da, tartean umorearena. Umorezko telesailak edo komediek arrakasta handia dute adin guztietako ikusleen artean. Jon Plazaola telebista-aurkezle eta aktoreak ibilbide luzea egin du Euskal Telebistan. Orain, Madrilera egin du salto eta arrakasta handia lortu du komedia batekin.



1 Entzun Jon Plazaolari egindako elkarrizketa eta adierazi esaldi hauek bat datozen hark esandakoarekin.

- Andaluziarren eta euskaldunen artean antzekotasun gutxi dago.
- Umore zuria edo unibertsala egiten baduzu pertsona gehiagorengana heltzen da mezua.
- Jakin-mina, askotan, inteligentziaren baliokidea da.
- Batez beste, 500.000 pertsonak ikusi dute kapitulu bakoitza.

2 Azaldu, zure hitzekin, zer esan nahi duen «errealitateak fikzioa gainditzen du».

3 Jarri taldeka eta aukeratu gai hauetako bat. Ondoren, eztabaidatu.

- Zein alde on eta txar ditu ospeak?
- Zenbat eta hizkuntza gehiago jakin, aberatsagoak al gara?



Entzun ahala



- Idatzi, entzun ahala, ideia garrantzitsuenak.
- Erreparatu elkarrizketan zehar Jon Plazaolak ospeaz eta hizkuntzak jakiteaz ematen duen iritzian.

EGITEN JAKIN



GONBIDAPENA

Lagunarteko festa baterako gonbidapena egitea



1 Gurasoen baimenarekin, festa bat antolatuko duzu. Zenbait lagunentzat gonbidapena idatzi behar duzu.

- Asmatu festaren arrazoia edo leloa.
- Idatzi festari buruzko xehetasunak: non izango den, zein egun eta ordutan...
- Pentsatu ea gonbidatuak zer bait eraman behar duten edo arauen bat bete behar duten, zure etxean izango baita festa.

Multzo-atzizkiak

1 -di/-ti, -(t)eria

Multzo-atzizkiak multzoa edo taldea adierazteko erabiltzen dira, eta, horrenbestez, haien bidez **izen multzokariak** sortzen dira.



MULTZO-ATZIZKIAK	ADIBIDEAK
-di/-ti: gehienetan, landare- eta arbola-izenei eransten zaizkie; atzizki hauen bidez sortutako izenek lekua ere adierazten dute.	<i>pinu + -di: pinudi</i> <i>pago + -di: pagadi</i> <i>mahats + -ti: mahasti</i>
-teria: pertsona-izenei eta gauza-izenei eransten zaie.	<i>gazte + -eria: gazteria,</i> <i>biztanle + -eria: biztanleria</i> <i>makina + -eria: makineria</i>

- **-ti** atzizkiak, bestalde, **izenondoak** sortzen ditu eta pertsonak, animaliak eta gauzak deskribatzeko erabiltzen dira. Atzizki honek **joera edo ugaritasuna** adierazten du: **gezurti** (gezurrak esaten dituen, gezurrak esateko joera duena), **beldurti** (erraz beldurtzen dena, beldurtzeko joera duena), **loti** (lo asko egiten duena)...
- **-(t)eria** atzizkia dela eta, dena den, gogoratu: euskaraz **askotan** ez dago izen multzokarien beharrik; **nahikoa da plurala** erabiltzea (*ikasleria/ikasleak, irakasleria/irakasleak, langileria/langileak*...).

ARIKETAK

- 1 Berridatzi esaldiak, izen multzokarien ordezkiz plurala erabiliz, adibidean bezala.

- Ikastetxe honetako *ikasleriak*, oro har, maila akademiko ona du.
- *Ikastetxe honetako ikasleek, oro har, maila akademiko ona dute.*
- Unibertsitateko *irakasleriaren* arazoei buruz hitz egingo dute.
- Dendari hark *bezeria* handia zuen, tratuan aditua baitzen.
- Gero eta finagoa da sukaldean erabiltzen den *tresneria*.
- Kaleko *argiteria* aldatu dute, herria edertzeko.

- 2 Sortu hitzak, arbola-izen hauei multzo-atzizkia erantsiz.

- arbola →
- lertxun →
- zuhaitz →
- intxaur →
- zumar →
- sagar →
- arte →
- gaztaina →

- 3 Irakurri definizioak eta idatzi dagokien hitza, **-ti/-di** eta **-(t)eria** atzizkiak erabiliz.

- Haritzek landatutako lekua, haritz-basoa:
- Belarra hazten den landa:
- Lurralde edo herrialde batean hazten diren landareen multzoa:
- Zalantzak dituen:

- 4 Osatu esaldiak hitz hauek erabiliz.

lotsatia ezkertia bakarti
basatiak tematiak

- gogor eta amore eman gabe eusten die bere iritzi, asmo eta erabakiei.
- Tigreak bezalako abere gustatzen zaizkit.
- Aita da: erraz lotsatzen da jendearen aurrean.
- Uharte batera alde egin zuen; ez zuen inorekin egon nahi.
- Idazteko-eta esku ezkerrez baliatzen da .

Zenbaki kardinalak nola idatzi

1 Zenbaki kardinalak idazteko arauak

Zenbaki kardinalak idazterakoan, honako arauak beteko ditugu:



ZENBAKI KARDINALAK IDAZTEKO ARAUAK	ADIBIDEAK
1etik 20ra, zenbakiak hitz bakarrean idazten dira:	<i>hamaika, hamabi, hamahiru, hamalau...</i>
3 eta 4 zenbakiak, hogeia eta ehun zenbakiak elkartzean, -r- kontsonantea hartzen dute:	<i>hirurogei, laurogei, hirurehun, laurehun...</i>
20 zenbakiak, beste zenbaki batekin elkartzean, h- galtzen du:	<i>berrogei, hirurogei, laurogei...</i>
21etik 99ra bereiz idazten dira, -ta lehen hitzari loturik:	<i>hogeita bat, berrogeita hamabi, hirurogeita lau, laurogeita bost...</i>
Ehuneko osoak idaztean, gogoratu hiru eta lau zenbakiak bakarrik lotzen zaiela -r-:	<i>hirurehun, laurehun... baina seiehun eta ez seirehun*</i>
Ehunekoekin doazen zenbakiak eta juntagailuz ematen dira; baina juntagailua bereiz idazten da:	<i>ehun eta bat, berrehun eta bi, bostehun eta hogeita hamar...</i>
1000 zenbakiaren ondoren ere eta juntagailua idazten da. Beste eta bat sartzen denean, lehendabizikoa ezabatuko dugu:	<i>mila eta bat, mila eta ehun... mila eta ehun eta hogeita bi</i>
1000 zenbakiaren multiploak juntagailu gabe idatziko ditugu.	<i>bost mila, ehun mila, bostehun mila...</i>

JAKIZU



Hamaika zenbakia ugaritasuna adierazteko ere erabiltzen da, «asko»ren pare:

- Hamaika tresna ekarri behar izan ditugu gaur plastikako eskolara!
- Hamaika komeria bizi izan genituen kanpalekuan!

ARIKETAK

1 Berridatzi hurrengo zenbakiak letrekin.

- 17 → hamazazpi
- 99 → _____
- 1238 → _____
- 371 → _____
- 45 → _____
- 984 → _____



2 Erantzun galdera hauei, zenbakiak letraz adieraziz.

- Zenbat urte dituzu? → Hamahiru
- Zenbat egun ditu urteak? → _____
- Zenbat liburu daude gelan? → _____
- Zenbat lagun zarete gelan? → _____
- Zein urtetan jaio zinen? → _____
- Zenbat arrautza daude dozena batean? → _____

3 Ordenatu hitzak, zenbaki luzeak osatuz.

- zazpi / laurehun / eta → laurehun eta zazpi
- lau / eta / bostehun / bi mila → _____
- sei / berrogeita / hirurehun / eta → _____
- bat / eta / seiehun / hamar mila → _____
- laurogeita / eta / zortziehun / hiru → _____
- hirurogeita / eta / hiru mila / zortzi → _____

4 Zuzendu okerrak hurrengo hiru esaldietan.

- Berrehun eta hogeia eta hamar biztanle ditu herritxo horrek. → _____
- Futbol estadioan hogeita hamar mila hiruehun zale sartzen dira. → _____
- Nire aitona mila bederatziehun eta hiruhogeita zortzian etorri zen herrira. → _____



Gauzak deskribatzea

Deskribatzea zerbaiten **ezaugarriak xehetasunez azaltzea** da. Pertsonak, tokiak, objektuak eta abar deskriba daitezke.

Deskribapena **objektiboa** zein **subjektiboa** izan daiteke. Zientzia-artikuluetan, adibidez, objektibotasuna izaten da nagusi; literatura-testuetan, berriz, subjektibotasuna. Zenbaitetan idazleak bietarik erabiltzen du, eta deskribapen **mistoak** sortu.

Gauzen deskribapenetan, eta oro har, deskribapen guztietan, **izenondoak** maiz ageri dira, eta deskribagaiak zehaztasunez azaltzea ahalbidetzen dute, era objektiboan zein subjektiboan ari garenean ere. Deskribapen subjektiboetan, **metaforak** ere erabili ohi dira. Era horretara, idazleak bere ikuspuntua adierazten du.



Papalagien oinetakoak

Tuiavii izeneko gizon polinesiar batek Europa bisitatu zuen XX. mendearen hasieran. Papalagi deitu zien europarrei eta haien ohituren deskribapena egin zuen bere herrikideentzat.

Interesgarria da gure munduari buruz zein ikuspuntu duen naturari erabat lotuta bizi den pertsona batek.

(...)

Papalagiek larru irmo baina moldagarri bat lotzen dute oinen bueltan. Gainaldeko larrua leuna eta malgua izaten da, eta primeran egokitzen da oinaren formara. Behealdekoa, ordea, gogorra da oso, eta ez da batere egokitzen.



Objektu hau sortzeko animaliak larrutzen dituzte labana batekin, eta gero, larru hura beratzen uzten dute. Ondoren, eguzkitan lehortu, eta kolpeka biguntzen dute. Larrua sendotzen denean, Papalagiek kanoen moduko egituratxoak osatzen dituzte: ertzetan altuak dira eta oinak sartzeko bezain handiak. Ezkerreko oinarentzat bat egiten dute, eta beste bat, ezkerrekoarentzat. *Oin-barku* horiek orkatilen bueltan lotuta daude, sokaz eta kakoz. Horrela, oina kapsula indartsu batean sartuta daramate, barraskiloa oskolaren barruan bezala.

Papalagiek egunsentitik iluntzera arte jantzita eramaten dituzte larruzko estalki hauek. Dantzan egiten dutenean, bero kiskalgarria egiten duenean nahiz ekaitza datorrenean. Beti.

Janzkera hau naturaren aurka doa. Horregatik, beraien oinak nekatu egiten dira, eta kirastun bihurtzen. Oinekin gauzei heltzeko gaitasuna guztiz galdu dute, baita zuhaitzetan gora igotzekoa ere.

Papalagiei lotsa ematen die larruzko estalki horien erabilerak, eta horregatik, larruaren berezko kolore gorrixka estaltzeko koipe moduko batekin estaltzen dute larrua. Igurtzi eta igurtzi, distiratsu bihurtzen dira barku txikiok. Hain distiratsu geratzen dira, ezen begientzat ere gehiegizkoa baita distira hau.

Izan zen European ohitura hori ez zela osasungarria esaten zuen Papalagi famatu bat. Hark esaten zuen goizalbako ihintza oraindik belar gainean dagoenean oinutsik ibiltzeak munduko gaixotasun guztiak senda zitzakeela. Gizon hura oso jakintsua zen, eta oso osasun ona zeukan, baina jendeak barre egiten zion, eta laster ahaztu ziren hartaz.

(...)

Erich Scheurmann
The Papalagi

Testutik abiatuta



- 1** Erantzun galdera hauei.
- Nor dira Papalagiak?
 - Nola sortzen dituzte Papalagiek *oin-barkuak*?
 - Zer ondorio ekarri die oinetakoen erabilerak Papalagiei?
 - Papalagi famatu bat ez omen zen oinetakoen aldekoa; zer zioen hark?

- 2** Zer azaltzen da testuko oinetakoen deskribapenean? Aukeratu.

- | | |
|--|---|
| ☐ Oinetakoek zer atal dituzten. | ☐ Oinetakoak nork asmatu zituen. |
| ☐ Oinetakoak zerez eginda dauden. | ☐ Oinetakoen onurak. |
| ☐ Oinetakoak nola sortzen dituzten. | ☐ Oinetakoak noiz erabiltzen dituzten. |

- 3** Zerrendatu oinetakoak, oro har, eta haien larrua zehazki deskribatzeko erabilitako izenondo objektiboak.

- Larrua: • Oinetakoak:

- 4** Adierazi testuko adierazpen hauetatik zein den objektiboa, eta zein subjektiboa. Arrazoitu zeure erantzuna.

- Larru irmo baina moldagarri bat lotzen dute oinen bueltan.
- Jantzera hau naturaren aurka doa.
- Larrua eguzkitan lehortu, eta kolpeka biguntzen dute.
- Hain distiratsu geratzen dira barku txikiok, ezen begientzat ere gehiegizkoa baita.

- 5** Zer-nolako deskribapena da testukoa? Aukeratu baieztapen zuzena.

- a) Zientzia-artikulu batekoa da; erabat objektiboa.
b) Deskribapen mistoa da; datu objektiboak eta subjektiboak ematen ditu.
c) Deskribapena erabat subjektiboa da; beraz, literatura-testu batekoa.



- 6** Metaforen bidez, idazleak bere ikuspuntua adierazten du. Zer metafora erabiliko zenuke objektu hauek deskribatzeko?

- | | |
|---------------------------------|-----------------------------------|
| • Zapatak: <i>oin-barkuak</i> | • Gerrikoa: <input type="text"/> |
| • Txapela: <input type="text"/> | • Ordularia: <input type="text"/> |

Idazteari ekin

- 7** Hautatu objektu hauetako bat, eta idatzi hori deskribatzeko testu bat.

- Tapoi-kentzekoa • Gitarra elektrikoa • Arkatza

- Hasteko, erabaki zeren arabera deskribatuko duzun objektua: behetik gora, zatiz zati, zentzumenen arabera...
- Gero, deskribatu objektua; lehen-lehenik, era objektiboan, izenondoak erabiliz. Azkenik, azaldu zure ikuspuntua, metaforaren bat erabiliz, subjektibotasun kutsua emateko.



Mitologia eta kondaira

San Martiniko eta Basajauna

Sara inguruan kontatzen denez, San Martinikoren errota-ardatza haritz egurrez egindakoa zen, eta nahiko arin erretzen zenez, bere eginkizunerako hondatua gelditzen zen. Basajaunaren errota luzaro irauten zuen, ordea. San Martinikok, sekretua jakin nahian, bere errota atsedetik gabe lanean ari zela zabaldu omen zuen. Orduan, Basajaunak berria zabal-tzen ari zenari honela galdetu omen zion:

–San Martinikok errotari haltzaren ardatza jarri dio ala?

–Ez, baina jarriko dio! –erantzun zion aldarrikariak.

Horrelaxe, San Martinikoren trikimailua dela medio, etengabe lanean aritzeko moduko errota zabaldu ziren munduan.



1 Mitoa, kondaira

Mitoak edo kondairak antzinako jainko-jainkosei edo heroiei buruzko kontakizunak dira. Errealitatearen eta fantasiaren artean kokatuta daude. Ahoz-ahoz transmititu izan dira belaunaldi batetik hurrengora eta **herri baten tradiziozko pentsamendu eta sineskerak islatzen dituzte**. Kristautasunaren hedapenarekin tokian-tokiko mitoak indarra galtzen joan ziren, elizak baztertu egin baitzituen sinesmen paganoak zirelako.

Pertsonaia mitologikoek **lotura estua izan ohi dute naturarekin, guduekin edo gertakizun harrigarriein**.

JAKIZU



Joxe Migel Barandiaran
(Ataun, 1889-1991)

Apaiz eta ikerlari ezaguna izan zen; euskal kultura eta historiari buruzko ikerketa sakonak egin zituen. *Mitología Vasca* liburuan (1960), esaterako, Euskal Herriko hainbat txokotan jasotako mito eta kondaira ugari bildu zituen.

2 Mitologia klasikoa

Mitologia klasikoa **grezian eta erromatar zibilizazioen sineskerak osatzen dute**. Kristo aurreko mendeetan indar handia izan zuten eta kontakizun asko gaur egunera arte iritsi dira, orduko filosofo eta poeta askok idatziz bildu baitzituzten. Obra horien artean **Homeroren Iliada eta Odisea** (K.a. VIII. mendekoak) dira ezagunenetakoak: lehenengoa Troiako gerrari buruzkoa eta bigarrena, gerra bukatu ondoren Odiseok Troiatik Itakara (bere sorterrira) egiten duen bidaiaren kontakizuna.

Jainko-jainkosen izenak, grekotik latinera aldatu ziren arren, esanahi edo izaera berbera zuten kultura bietan:

Izaera	Grezian	Erroman
Jakinduriaren jainkosa	Atenea	Minerva
Unibertsoaren jainkosa	Zeus	Jupiter
Edertasunaren jainkosa	Afrodita	Venus
Gerraren jainkosa	Ares	Marte

3 Euskal mitologia

Euskal Herrian ere, antzinako kondaira eta mito ugari ezagutzen ditugu. Kontakizun hauek **ipuin tradizionalekin nahastu izan dira, baina genero ezberdinak dira**. Aita Barandiaranen arabera, ipuinetako pertsonaia, leku eta garaia ezagunak edo zehaztu gabeak izan ohi dira: *Artzain gezurtia* edo *Zazpi antxumeak*, adibidez. Kondairetan, aldiz, kokapena, garaia eta protagonistak ezagunak izaten dira: *Anbotoko Mari*, *Olentzero*, *Laminak*, *Basajaunak*...

Antzinako euskaldunen sineskera paganoek, lurra dute erdigune. **Ama Lurra** zen jainko nagusia eta alaba bi zituen: **Eguzki Amandrea** eta **Ilargi Amandrea**. Kondairak dioenez, bi horiek lurraren barnetik irteten dira egu-nero eta, zerua gurutzatu ondoren, lurraren magalera itzultzen dira berriz.



4 Pertsonaia nagusiak

Euskal mitologiaren ikur ezagunena **Mari** da, lurraren pertsonifikazioa eta naturako elementuen indarra duena. Persefone jainkosa greziarrarekin alderatu izan dute, naturarekin duten loturagatik.

Tartalo artzaina ere ezaguna da: basoetan ibiltzen den begi-bakar erraldoia. Greziar mitologian Ziklope deritzo pertsonaia honi eta, besteak beste, arestian aipaturiko *Odisean* agertzen da.

Euskal mitologian, **Akerbeltz** sorginen buruzagia, basoetako **Basajaun** eta **Basandere**, **Laminak** eta **Galtzagorriak** ere aurki daitezke.

Pertsonaia batzuen inguruan ospakizun eta jaiekin, bereziki inauteriekin, lotutako tradizioa luzea da. Ezagunak dira Zalduondoko **Markitos**, Mundakako **Laminak** eta **Atorrak**, Zuberoako **Zamaltzainak**, Lesakako **Zakuzaharrak** edo Lantzeko **Mielotxin** eta **Ziripot**.

ARIKETAK

1 Erantzun galdera hauei.

- Zeintzuk dira mito eta kondairetako gai nagusiak?
- Zergatik galdu zuten indarra antzinako mitoek?
- Zeintzuk dira Homeroren lanik ezagunenak? Zer kontatzen dute?
- Zertan desberdintzen dira ipuin tradizionalak eta kondairak, Barandiaranen arabera?

2 Euskal mitologiako zein pertsonaiari dagokio deskribapen bakoitza?

- Ziklope izenez ere ezagutzen den artzaina.
- Iluntzero irten eta goizero berriz ezkutatzen dena.
- Jainkosa gorena, naturarekin lotura estua duena.
- Akelarreetako izaki nagusia.




3 Aukeratu hiru jainko greziar hauetako bat eta bilatu hari buruzko informazioa. Ondoren, bete haren fitxa.



Atenea



Zeus



Afrodita

4 Ezagutzen al duzu mito klasikoetan oinarrituriko ipuin, liburu edo filmik? Aipatu izenburuak eta gai nagusia.

Ehiztari gaztea

Aspaldiko garaietan izan zen Gorbeia aldean ehiztari bikaina zen gazte bat. Gipuzkoako kostaldeko neska gazte eder batez maitemindu zen eta ezkontzera ekarri zuen bere herrira. Eztei-ospakizunetan bikotearen senitartekoak eta lagunak elkartu ziren jai alai bat ospatzeko. Gazteen artean jokoak eta apustuak antolatzea pentsatu zuten, eta gazte batek mendian harrapatutako lepahori bat atera zuen torneo bat antolatzeko asmoz. Lepahoria libre utzi eta lantza jaurtiketa bakarrean hil behar zen. Lehen jaurtitzaila izateko ohorea ehiztari gazteari utzi zioten. Jokoa hasi eta jaurtitzera zihoala, laino artetik eguzki-izpi distiratsu bat atera eta lantza desbideratu egin zen. Zorigaiztoaren zorigaiztoz, lantza desbideratua andregaiaren bihotzera joan zen bete-betean, eta hantxe bertan hil zen neska gaztea. Guztiak zur eta lur gelditu ziren.

Mendiko Jaunaren zigorra izan omen zen, haren abereei tratu txarra emateagatik.

Ehiztari gaztea bere maitea berak hil zuela ikustean, atsekabetuta, mendira joan zen betiko, eta ez zen gehiago agertu. Ordutik, ehiztariaren arima Gorbeia mendietan barrena omen dabil barkamen eske, eta ekaitz egunetan, oraindik ere, bere negar-zotinak entzuten omen dira.

Amaroa, Euskal Mitologiaren ataria

ARIKETAK

- 1 Zein izaki mitologiko azaltzen da kondaira honetan?
- 2 Erantzun galderei.
 - Nor da testuko protagonista?
 - Zein dira haren ezaugarriak?
 - Zer gertatu zen eztei egunean?
- 3 Zer irakatsi nahi digu kondaira honek?



EGITEN JAKIN




Kondaira bat kontatzea

- 1 Fitxa hau eredu harturik, bildu informazioa zure herriko kondairaren bati buruz edo atsegin duzun pertsonaia baten inguruan.

Izena:	<i>Dragoiaren kondaira</i>
Kokapena (noiz, non):	<i>Erdi Aroan, Arrasateko Murugain kobazuloan.</i>
Kondaira:	<i>Dragoiak urtero herriko neska bat eramaten zuen eta herritarrek beldurturik zeuden. Behinola argizarizko figura bat eskaini zioten benetako neskaren orde. Figura jan eta argizaria ahoan urtzen hasi zitzaionean, erdi itota geratu zen dragoia eta herritarrek, une hura aprobetxatuta, hil egin omen zuten.</i>
Datu deigarriak:	<i>Gertaera haren ondoren hartu omen zuen Arrasatek Mondragon izena.</i>

- 2 Jarri bikoteka eta kontatu elkarri zuen kondairak fitxaren laguntzaz.

★ GRAMATIKA. Perpausaren osagaien funtzioa. Izena eta izenordainak




Perpausak bi osagai nagusi ditu: **izen-sintagma** eta **aditz-sintagma**. Izen-sintagma, subjektu-funtzioa betetzeaz gain, predikatuan ere ager liteke aditzaren osagarri. Horrelakoetan, **osagarri zuzena** (predikatu barruan Nor deklinabide-kasua daraman izen-sintagma) edo **zehar-osagarria** (predikatu barruan NORi deklinabide-kasua daramana) ager daitezke.

Izen-sintagmaren osagai nagusia, berriz, izena da. Izenak **arruntak** (*lagun, mendi*) edo **bereziak** (*izaskun, Bizkaia*) izan daitezke. Arrunten artean **zenbakarriak**, hau da, zenbatu daitezkeenak (*txakur bat, bi sagar*) eta **zenbakaitzak** hau da, zenbatu ezin daitezkeenak (*hotz handia, denbora luzea*) daude.

Izenaren ordean, izenordainak ager daitezke. Hainbat izenordain mota daude: **pertsona-izenordainak** (*ni, zuk, hari*), izenordain **zehaztugabeak** (*nor, zein, inor*), **bihurkariak** (*neure burua, bere burua*) eta **elkarkariak** (*elkar, elkarrekin*).

TESTU-TIPOLOGIA. Gauzak deskribatzea



Deskribatzea **zerbaiten ezaugarriak xehetasunez azaltzea** da.

Deskribapenak **objektiboak**, **subjektiboak** edo **mistoak** izan daitezke. **Zientzia-artikuluetan**, adibidez, objektibotasuna erabili ohi da; **literatura-testuetan**, berriz, subjektibotasuna.

Deskribapenetan **izenondoek** deskribagaiak zehaztasunez azaltzea ahalbidetzen dute; deskribapen subjektibo zein objektiboetan ageri ohi dira. **Metaforak** deskribapen subjektiboetan agertzen dira. Era horretara, idazleak bere ikuspuntua adierazten du.

LITERATURA. Mitologia eta kondaira



Mitoak edo **kondairak** antzinako jainko-jainkosei edo heroiei buruzko kontakizunak dira eta herri baten tradiziozko pentsamendu eta sineskerak islatzen dituzte.

Mitologia klasikoa greziar eta erromatar zibilizazioaren sineskerak osatzen dute. Obra hauen artean daude **Homeroren Iliada** eta **Odisea**.

Euskal Herrian ere, antzinako kondaira eta mito ugari daude. Sineskera paganoek lurra dute erdigune: Ama Lurra, Eguzki Amandrea, Ilargi Amandrea... **Euskal mitologian** hainbat pertsonaia daude, adibidez, **Mari, Tartalo, Akerbeltz, Basajaun eta Basandere, Laminak** eta **Galtzagorriak**.

IRAKURMENA

1 Irakurri ondoko testua eta erantzun galderei.

★ Soinua eta letra

Munduko edozein bazterretan bizi, itsasertzean zein mendi puntan, guzti-guztiok egiten dugu barre. Eta ez dakit zuri, baina niri ingeles baten barreak, korear batenak edo euskaldun batenak antzeko soinua dutela iruditzen zait. Egia da: badira barre zoliak, barre lodiak, barre politak, barre itsusiak eta baita barre kutsakorrek ere, baina ez dio axolarik nongoa zaren halako edo bestelako barrea izateko.

Nahastea barrearen soinua idazteko orduan dator, halakoetan, beste gauza askotan bezala, jatorriak zeresan handia du-eta.

Barrea abestia balitz, soinua berbera izango litzateke mundu guztian, baina letra aldatu egingo litzateke herrialde batetik bestera.

Ikusi, bestela:

Ingelesezt, *hahahaha*
idatziko lukete.

Frantsesezt, *héhéhéhé*.

Italieraz, *eheheheh*.

Gaztelaniazt, *jajajaja*.

Portugesezt, *huehuehue*.

Korean, *kekekeke*.

Grezieraz, *xaxaxaxa*.

Eta euskaraz, berriz, *kar-kar-kar*.

Nolanahi idatzita ere, guztiok elkarrekin barre egitea da printzipalena, ez al duzu uste?



- Testua idatzi duenaren ustezt, nolakoa da barrearen soinua mundu guztian?
- Zer-nolako barre motak aipatzen ditu?
- Zein da barre kutsakorraren ezaugarri nagusia?
- Zer gertatzen da barrearen soinua idazteko orduan?
- Eman adibideak. Non ageri ohi da barrearen soinua idatziz?

GRAMATIKA

2 Azpimarratu osagarri zuzenak, eta inguratu zehar-osagarriak.

- Gure aitak amari gona gorria ekarri dio.
- Iaz loteria suertatu zitzaion amona Inaxiri.
- Lagunek gezur mordoa kontatu dizuete zuei.
- Gozoki bana eman diogu gure auzokoaren seme-alabei.

3 Osatu esaldiak asko edo handia erabiliz.

- Bero dago, eta jendetza bildu da hondartzan.
- Haize dabilenez, hosto daude airean.
- Lotsa ematen dit jendearen aurrean abesteak.

4 Osatu esaldiak, izenordain elkarkariak erabiliz.

elkarri, elkarren, elkarrekin, elkarrengan

- Matxalen eta Josu bizi dira.
- Anaiak eta biok den-dena kontatzen diogu .
- Gurasoek eta seme-alabek konfiantza izan behar dute .
- Neska horiek alboan esertzen dira beti.

5 Aukeratu izenordain zuzena, esaldiak osatzeko.

- Egunero gauza bera errepikatzen diot .
 - a) niri
 - b) nire buruari
 - c) neure buruari
- kirola egiten dut, eta ere egin beharko zenuke.
 - a) Nik/zuk
 - b) Nik/zeuk
 - c) Neuk/zeuk
- Egun osoan ez dugu jan, eta gose gara.
 - a) zerbait
 - b) ezer
 - c) ezer ere ez

6 Erantzun, izenordain bihurkariak erabiliz.

- Zer ikusten duzu, ispiluaren aurrean jartzen zarenean?
- Norekin ari zara hizketan, zeure golkorako ari zarenean?
- Erruduna neu banaiz, nori bota behar diot errua?

LEXIKOA

7 Osatu hitzak multzo-atzizki egokiak erabiliz.

- | | | |
|----------|-------------------------------|-----------|
| • mahats | <input type="text"/> -di/-ti | • arau |
| • pinu | | • ontzi |
| • egia | <input type="text"/> -(t)eria | • baso |
| • tresna | | • langile |

8 Adierazi goiko zein hitzi dagozkion definizio bakoitza.

- Beti egia esaten duena:
- Sukalderako gauzen multzoa:
- Pinu-basoa:
- Jardunbidea antolatzeke arau-multzoa:
- Pertsona hezigabea:
- Lanbide bateko tresna-multzoa:
- Mahatsondoak landaturik dauden saila:
- Langileen gizarte-klasea:

ORTOGRAFIA

+ 9 Erantzun, zenbakiak letraz emanaz.

- Zenbat arrautza dira bi dozena eta erdi?
- Zenbat urte bete ditu udal liburutegiak aurtan mendeurrena ospatzen bada?
- Zenbat kilo dira hiru tona eta erdi?
- Zenbat egun ditu bisurteak?
- Zer zenbaki erabiltzen da ugaritasuna adierazteko?

10 Berridatzi hurrengo zenbakiak letrekin.

- | | | |
|----------|----------|-----------|
| • 1.717 | • 333 | • 2.435 |
| • 867 | • 4.389 | • 10.632 |
| • 65.963 | • 35.940 | • 234.786 |

KOMUNIKAZIOA

★ 11 Entzun *Leioako Umore Azoka* eta esan esaldi hauek egia ala gezurra diren. 🔊

- Umore Azoka antzerki-konpainientzat eta prentsarentzat soilik antolatzen da, ez ikusleentzat.
- Emanaldi guztiak Leioako antzokian egiten dira.
- Euskadiko, estatuko eta atzerriko konpainia garrantzitsuak biltzen ditu.
- Artista berriei beren lanak erakusteko aukera ematen die.

12 Azaldu. Zein da Leioako Umore Azokaren helburua?

LITERATURA

★ 13 Irakurri ipuina eta erantzun galderei.

Marizuloko zezengorri

Amezketan kontatzen dutenez, behin batean, Irabi baserriko neskata Aralarra igo zen larrean zeukan behi baten bila. Txahal gorri bat ikusi zuen, eta berea zelakoan, haren atzetik abiatu zen. Buztanetik heldu zion eta segika joan zitzaion, Marizulo kobazulora eraman zuen arte. Marizulo Mariren bizilekua zen.

Neskatxaren familia bere bila ibili zen; alferrik, ordea, ez baitzuten inoiz aurkitu. Herrian esaten dutenez, beste batean ikusi omen zuten neskata hura Marizulon txakur gorri bat ondoan zuela, haitzuloa zaintzen.

- Ipuin honetan pertsonaia mitologikorik azaltzen al da? Zein?
- Hura al da ipuineko protagonista? Nor, bestela?
- Zer kontatzen da ipuinean?

14 Bereizi pertsonaia mitologikoak eta esan haiei buruz dakizuna.

- | | |
|------------------|--------------------|
| • Mari Errauskin | • Anbotoko Mari |
| • Tartalo | • Artzain gezurtia |
| • Lamia | • Zeus |
| • Erpurutxo | • Galtzagorriak |



IDAZTEN JAKIN


Gauzak deskribatzea



Aukeratu objektu hauetako bat, eta deskribatu. Deskribapen mistoa egingo duzu, hots, datu objektiboak eta subjektiboak ematen dituen. Horretarako, objektuaren itxura deskribatu ez ezik, zure irudipenak ere adieraziko dituzu.

Deskribapena egiteko, jarraitu honako aholku hauei:

- Adierazi objektua zerez egin den, zer atal dituen, zertarako den eta nola erabiltzen den.
- Ondoren, esan zer beste gauza, izaki edo objektu ekartzen dizun gogora eta konparatu horrekin.
- Erabili metaforaren bat zeure deskribapenean.



Materialak: zura, metala, beira, plastikoa...

Atalak: heldulekua, kirtena, oinarria...

Erabilera: jolaserako, eguneroko zereginetarako...